

**«VIVIENDA Y SUELO DE EUSKADI, S.A.» «EUSKADIKO ETXEBIZITZA ETA LURRA, E.A.»  
SOZIETATE PUBLIKOAREN ESTATUTUAK -**

---

## **I. TITULUA**

### **SOZIETATEAREN ERAKETA, IZAERA, IZENA, XEDEA, EGOITZA ETA IRAUPENA**

#### **1. artikulua.- Eraketa, izaera, izena eta araubide juridikoa**

1. «Vivienda y Suelo de Euskadi, Sociedad Anónima» - «Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A.» izenarekin eratu da izaera anonimoko Sozietate Publikoa. Merkataritza Sozietateen kategoriakoa da eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioa da bazkide bakarra, eraketa unean.

2. Aipatutako sozietatea honek hauek arautuko dute: maiatzaren 17ko 1/88 Legegintzako Dekretuak, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruz indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duenak; Estatutu hauek; indarrean dagoen Sozietate Anonimoen buruzko Legeak eta Sozietate Anonimoen Araubide Juridikoa xedatzen duten gainerako lege-aginduek.

#### **2. artikulua.- Xede soziala**

1.- Sozietateak honako xede soziala izango du:

I.- Etxebizitza sustatzea eta birgaitze, Babes Ofizialekoak bereziki, artikuluko honen c) atalean aurreikusten denaren kalterik gabe. Jarduera horrek honako hauek hartzen ditu barne:

a) Bizitegi-lurzoruen eta higiezinaren plangintza, hirigintza eta partzelazioa egitea eta eskuratzea, erakunde publikoenak nahiz partikularrenak, edozein forma eta prozeduraren bidez, etxebizitza sustapenerako eragiketarako egiteko.

b) Era guztietako obrak, azterketak, proiektuak eta mantentze-lanak eta kudeaketak esleitzea eta kontratatzea, komunitate-ekipamendu, lursailen hirigintza eta etxebizitzaren eraikuntza eta birgaikuntzarekin zerikusia dutenean, betiere Autonomia Erkidegoko gizarte-eskakizunei eta lurraldearen ezaugarriei egokituta, erakunde eskumendunei eta horretarako legitimatuta dauden esleipendunei Sozietateak kudeatzen eta sustatzen dituen etxebizitzak eta ekipamenduak askatasunez erabiltzeko aukera emanez.

c) Edozein enpresa edo erakunde publikori laguntza teknikorako prestazioa eta bere izaerari eta jarduerari dagozkion zerbitzuak ematea kontratu bidez.

II.- Etxebizitza eragiketarako birgaitze-jarduera guztiak, hala nola lurzorua eskuratzea eta prestatzea, multzo historiko edo arkitektonikoak antolatzea eta kontserbatzea, etab., eta, bereziki, lehendik dauden etxebizitzak birgaitzea, edozein sustapen motatan.

III.- Hirugarren batzuei ordaindutako laguntza teknikoak ematea eta zerbitzu teknikoak, ekonomikoak, industrialak, merkataritzakoak, komisiozkoak edo bere izaerari eta jarduerari dagozkionak egitea.

IV.- Era guztietako ondasunak, higikorak edo higiezinak, eskuratzea eta saltzea, eta aurreko puntuetan azaldutako helburuei eta jarduerari dagozkien eta behar diren eraikuntzak edo eraikinak egitea horietan.

V.- Alokairu erregimeneko etxebizitzak kudeatzea, sozietatearen ondareari dagozkionak eta, edozein lagapen-tituluren bidez, alokatzeko helburuarekin berari atxikitakoak.

VI.- Energia eraginkortasuna hobetzearekin lotuta dauden energia zerbitzuak ematea, gehienbat bere etxebizitza sustapenetan; zerbitzu horiek honakoak izan daitezke: energia hornitzea eta merkaturatzea, energia ekoizleei edo banatzaileei erosita, energiaren kudeaketa, instalazio kontsumitzaileen eragiketa eta mantentze-lana, bai zuzenean, bai beste sozietate batzuetan parte hartzearen bitartez, partaidetzako sozietate horien kudeaketa, zuzendaritza eta administrazioa barne.

(*Batzar Nagusian onartua: 2011/06/16*)

2.- Xede soziala betetzeko, Sozietateak beste enpresa nazional edo atzerriko batzuetan parte hartu ahalko du, horien helburua etxebizitzak eraikitzeko programak edo antzekoak badira, betiere Gobernuaren aurretiazko baimenarekin eta kasu bakoitzean zehaztuko diren baldintzetan.

3.- Sozietateak lehiaketa libreko erregimenean esleituko du obren exekuzioa; beraz, ez ditu inoiz Sozietateak berak zuzenean exekutatu, eta esleipen prozeduretan publizitate eta lehia librearen printzipioak errespetatu dira.

### **3.- artikulua.- Egoitza soziala**

1. Egoitza soziala Vitoria-Gasteizen finkatu da, Gamarrako Atea 1-A, 2. solairua.

(*Administrazio Kontseiluak onartua: 2009/02/05*)

2. Administrazio Kontseiluak egoitza soziala lekuz aldatu dezake Vitoria-Gasteizko udal-mugartean.

Batzar Nagusiak egoitza soziala lekuz aldatu eta Vitoria-Gasteiztik kanpora eraman dezake.

3. Administrazio Kontseiluak era guztietako bulegoak, lantokiak, instalazioak, gordailuak, sukurtsalak, agentziak edo Sozietatearen ordezkariak ireki, lekuz aldatu, eraldatu edo kendu ditzake edozein lekutan, baita bere eskumenak, egitekoa eta funtzionamendua arautu ere.

### **4. artikulua.- Eragiketen iraupena eta hasiera**

Sozietatearen iraupena mugagabea da eta Merkataritza Erregistroan inskribatzen denean hasiko ditu bere eragiketak.

## **II. TITULUA**

### **KAPITAL SOZIALA ETA AKZIOAK. I. KAPITULUA: KAPITALA**

#### **5. artikulua.- Kapital soziala**

1. Kapital soziala hogeita hamazazpi milioi berrehun eta berrogeita bat mila zazpiehun eta zortzi sei euro eta berrogeita hamazortzi zentimotan (37.241.708,58 €) finkatu da, 12.393 akzio izendunek ordezkaturik, bakoitza 3.005,06 €-ko balio izendunekoa; klase bakarrekoak eta 1etik 12.393ra, biak barne, korrelatiboki zenbakituak, guztiz harpidetu eta ordaindutako tituluetan gauzatuak. Akzioak taloi-liburuetan jarrita egongo dira.

(*Batzar Nagusian onartua: 2016/06/28*)

2. Kapital sozialerako ekarpenak egin ditzakete Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoetako foru-aldundiek, Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eta eremu bereko aurrezki-kutxek eta kreditu-kooperatibek, baita kreditu-erakundeek ere, eremu horretako Aurrezki Kutxek haien bitartez eskusiboko eta zeharka beren xedea betetzen badute kreditu erakunde gisa.

(*Batzar Nagusian onartua: 2012/03/26*)

3. Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioak, foru-aldundiek eta udalek egindako ekarpenak batuta sortzen den Sozietate Anonimo honetako partaidetza ez da inoiz bere kapitalaren ehuneko hirurogeita zazpi baino txikiagoa izango.

4. Sortzen den Sozietate Anonimo honetan, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioak duen partaidetza ez da bere kapitalaren ehuneko berrogeita hamaika baino txikiagoa izango.

5. Sozietaterako ekarpenak dirutan egin daitezke edo dirutan baloratu daitezkeen ondare izaerako edozein ondasun eta eskubide motatan.

## **II. KAPITULUA: AKZIOAK Lehen atala.- Xedapen orokorrak**

### **6. artikulua.- Akzioak**

1. Akzioak izendunak izango dira eta horien zenbatekoa hiru mila eta bost euro eta sei zentimokoa (3.005,06 €) izango da.
2. Akzio baten edo gehiagoren titular izateak bazkide izaera ematen du, eta Legeak eta Estatutu hauek aurreikusten dituzten eskubideak eta betebeharrak ematen dizkio bazkideari.
3. Akzioen tituluek indarrean dagoen Sozietate Anonimoei buruzko Legeak zehaztutako baldintzak edukiko dituzte, eta Administrazio Kontseiluko bi kideren sinadura izango dute inprimatuta.
4. Akzioen titularrak, horien transferentziak eta horiei dagozkien eskubide errealak, kargak edo zergak erregistro- liburuan jasoko dira, eta Administrazio Kontseiluko Idazkariak gordeko ditu.
5. Sozietateak aurreko atalean aipatzen den erregistro-liburuan akzioen titular gisa ageri diren pertsona juridikoei aitortuko die soilik bazkide izaera.
6. Akzioen titularkidetzak, bahia eta gozamina dagoen kasuetan Sozietate Anonimoen alorrean indarrean dagoen legeriak xedatutakoa aplikatuko da.

### **Bigarren atala.- Akzioen eskualdagarritasuna**

#### **7. artikulua.- Akzioak «inter vivos» egintzen bidez askatasunez eskualdatzeko murrizketak**

1. Akziodunen batek, «inter vivos» egintzen bidez, Sozietatean partaidetzarik ez duten pertsonari akzio bat edo gehiago eskualdatzeko asmoa izango balu, asmo horren berri eman beharko dio, idatziz, Administrazio Kontseiluari.
2. Jakinarazpen horretan egiteko asmo duen eragiketaren funtsezko zehaztasunak jaso beharko ditu bazkideak, gutxienez, honako hauek:
  - a) Zer negozio juridiko mota egiteko asmo duen.
  - b) Zenbat akzio eskualdatuko diren.
  - c) Zer prezioan egingo den eragiketa eta, hala badagokio, ordainketaren baldintzak.
  - d) Nori eskualdatuko zaizkion edo zaizkien akzioak.
3. Administrazio Kontseiluak jasotako jakinarazpenaren berri emango die, idatziz, gainerako bazkideei.

Gutuna jaso eta hilabeteko epean, bazkideek, eskualdatu nahi diren akzioak erosteko duten lehentasunezko aukera eskubidea erabili dezakete, Administrazio Kontseiluari zuzendutako jakinarazpen bidez; gainera, eragiketaren prezioari eta beste baldintzei buruzko adostasuna edo eragozpenak adierazi ditzakete.

4. Aurreko atalean aurreikusitakoari jarraituz, akziodunek eskatutako akzio-kopurua erabilgarri dagoena baino gehiago izango balitz, eskatzaileen artean banatuko dira proportzionalki lehendik titular diren akzioen arabera.

Proportzionaltasun araua aplikatuta, akzioen bat edo batzuk indibiso eskuratu beharko balira, akzio horiek arau horretatik kanpo geratu eta eskatzaileen artean zozketa bidez esleituko lirateke; zozketa Administrazio Kontseiluaren aurrean egingo da.

5. Akzioak erosteko interesa duen akziodunik ez balego, Batzar Nagusiak ezohiko bilkuran erabaki dezake bazkideek eskatu gabeko akzioak eskuratzea, irabazien eta erreserba librean kontura, artikulua honen hirugarren puntuan ezarritako epearen hurrengo hilabetean.
6. Administrazio Kontseiluak akzioak lehentasunez erosteko interesa duten akziodunei jakinaraziko die, azkenean zenbat akzio egokitu zaizkien.

7. Akziodunen bat edo, dagokionean, Batzar Nagusia egin nahi den eskualdaketari buruzko jakinarazpenean adierazitako prezioarekin ados ez baleude, akzioen balorazioa egin beharko da. Balorazio hori Administrazio Kontseiluak egingo du, Sozietatearen egoera ekonomikoaren arabera, eta, betiere, inbentario-balantzetik eta kontabilitateko beste dokumentuetatik ateratako datuak kontuan hartuta.

8. Akzioak gainerako bazkideek edo Batzar Nagusiak eskuratzen badituzte, nahikoa izango da bazkideek edo Batzar Nagusiak besterentzailearen esku jartzea besterentzearen jakinarazpenean ageri den prezioa, edo aurreko atalean aipatzen diren kalkuluon ondoriozkoa, artikuluko honen hirugarren eta bosgarren ataletan bazkideentzat eta Batzar Nagusiarentzat hurrenez hurren ezartzen diren epeen hurrengo hilabetearen, eskubide horren erabilera gauzatzat jotzeko eta akzioak bazkideei edo Sozietateari eskualdatutzat jotzeko.

9. Artikulu honen zortzigarren puntuan aipatzen den epea amaitu ondoren, akzioak lehentasunez eskuratzeko eskubidea gauzatu nahi duen akziodunen batek lehenago eskatu dituen akzioei dagokien prezioaren zatia eskualdatzailearen esku jarri ez badu, Administrazio Kontseiluak, Batzar Nagusiaren eskuordetze iraunkorrez, bost egun naturaleko salbuespeneko epea izango du, atal honetan aipatzen den epea amaitzen denetik kontatzen hasita, ordaindu ez duen bazkidearen ordezkoa izateko eta, horrela, hark lehenago eskatu dituen akzioak eskuratzeko, irabazien eta erreserba libreen kontura, eta, segidan, eskuratutako akzioak amortizatzeko.

Akziodun batek erosteko konpromisoa hartu zuen akzioen zenbatekoa dagokion epean eskualdatzailearen eskura jarri ez badu, eta horren ondorioz, aurreko paragrafoan adierazi bezala, Administrazio Kontseiluak eskubide hori gauzaten badu, akziodun horrek sozietatearen aurrean erantzun beharko du hasieran bere kargura zegoen zenbatekoarekin, gehi interesak, Espainiako Bankuaren oinarrizko birdeskontu-tasaren arabera kalkulatuta, akzioak lehentasunez erosteko eskubidea gauzatzeko epea amaitzen den datan, gehi Sozietateari eragindako kalteak. Sozietateak diru-kopuru horiek guztiak berreskuratu ditzake Sozietate Anonimoei buruzko Legearen 45. artikuluan ezarritako prozedurak erabilita; nolana ere, Sozietateak kopuru horiek guztiz jasotzen ez dituen bitartean, etenda geldituko dira zordunaren bazkide eskubideak.

10. Artikulu honen hirugarren eta bosgarren puntuetan adierazitako epeak igarota, ez akziodunek ez Batzar Nagusiak akzioak lehentasunez erosteko eskubidea gauzatu ez badute, edo artikuluko honen 9. puntuan adierazitako salbuespenezko epea amaituta, Administrazio Kontseiluak eskubide hori gauzatu ez badu, edota, atal honetan aipatzen den epea amaitu baino lehen, gainerako akziodun guztien eta Administrazio Kontseiluaren adostasun frogagarria badago egin nahi den eragiketa gauzatzeko, transmisioa egiten duenak libreki besterendu ahalko ditu akzioak artikuluko honetan aurreikusitako edozein eratan. Besterentze hori eskritura publiko bidez formalizatu beharko da, artikuluko honen 1. puntuan aipatzen den jakinarazpenean adierazitako baldintza berdinetan, eta eskritura egin eta gehienez zortzi eguneko epean Administrazio Kontseiluari jakinarazi beharko zaio modu frogagarrian.

11. Akzioen besterentze-eskrituraren edukitik edo Sozietateak gerora egindako ikerketatik ondorioztatuko balitz, akzio horiek artikuluko honen 1. atalean aipatzen den jakinarazpenean ezarritakoa ez den prezioan edo baldintzetan eskualdatu direla, Sozietateak eta bazkideek atzera egiteko eskubide konbentzionala izango dute horrela eskualdatu diren akzioen gainean, eta eskubide hori bazkideek edo sozietatearen organoek gauzatu beharko dute artikuluko honen 3tik 9ra bitarteko puntuetan ezarritako modalitateen arabera. Eskubide hori gauzatzeko epea Administrazio Kontseiluak besterentze-eskrituraren kopia baimendua jasotzen duenetik hasiko da kontatzen, edo egindako irregularitasuna aurkitzen denetik, kasuaren arabera.

12. Bere akzioak besterendu nahi dituen bazkidea Administrazio Kontseiluak, artikuluko honen 7. puntuaren arabera, ezarritako prezioarekin ados ez balego, ezin izango dio uko egin ordainketari eta ondorengo akzio eskualdatzeari, baina erabaki horren aurkako erreklamazioa egiteko eskubidea izango du, Estatutu hauen berrogeigarren artikuluan ezarritako prozeduraren arabera.

Atal honetan aurreikusten den erreklamazioaren ondorioz, lehentasunez erosteko eskubidea erabiliz eskuratutako akzioei bere garaian eskualdatzailearen eskura jarritako prezioa baino handiagoa jarriko balitzaie, hark eskubidea izango du eskubidea erabili zuenarengandik prezioaren osagarria jasotzeko, eta horrez gain, Espainiako Bankuaren oinarrizko birdeskontu-interesak, lehentasunez erosteko eskubidea erabili zen datatik kontatzen hasita.

Arrazoi horregatik ez da inoiz egindako eskualdatzea ezeztatuko.

## **8. artikulua.- Lehenatasunez harpidetzeko eskubidea**

1. Edozein kapital-handitze egitea onartzen denean, erabakia hartu den unean akziodun direnek akzioak lehenatasunez harpidetzeko eskubidea izango dute. Eskubide hori gauzatzeko hilabeteko epea dute, Batzar Nagusiak kapitala handitzea eta akzio berriak jaulkitzea ebazten duen datatik hasita; eskubidea erabiltzen duten unean, erosi nahi dituzten tituluen prezio nominala ordainduko dute, eta, hala badagokio, estatutu hauen 7.4 artikuluan ezarritako hainbanaketa egingo da.
2. Akziodunek lehenatasunez harpidetzen ez dituzten akzioak egon litezkeen beste erosle batzuei eskainiko zaizkie, Administrazio Kontseiluak zehazten duen epean.
3. Administrazio Kontseiluak, Batzar Nagusiaren eskuordetze iraunkorrez, atzera egiteko eskubidea erabili dezake lehenetik bazkide ez den edozein harpidetzaileraren aurrean, eta akzioak eskuratu, irabazien eta erreserba libreen kontura, hamabost eguneko epean, egindako harpidetzearen jakinarazpena idatziz egiten denetik hasita.

## **9. artikulua.- Eskualdatze irregularren ondorioak**

1. Balizko hauetarako, bazkideen, Batzar Nagusiaren edo Administrazio Kontseiluaren alde ezarritako harpidetza eskubideak erabiltzeari edo lehenatasunez eskuratzeari kalterik egin gabe, aurreko bi artikuluetan aipatutako arauak urratuz egindako harpidetzek edo eskualdatzeek ez dute ondoriorik izango Sozietate Anonimoaren aurrean.
2. Arauz kontra harpidetu edo eskualdatutako akzioei dagozkien bazkidearen eskubideen erabilera etenda geratuko da, eskualdatzaileak, harpidedunak edo onuradunak aurreko artikuluetan eskatutako baldintzaren bat alde batera utzi duen datatik. Interesdunek ezkutatu badute, eta harpidetza, eskuratzeko edo eskualdatze irregularra ezagutu gabe, Sozietateak akzioei irabaziren bat emango balie, eskualdatzaileak, harpidedunak edo eskuratzeko jakotakoa Sozietateari solidarioki itzultzeko ardura izango dute, Espainiako Bankuaren oinarrizko birdeskontu-interesekin haietako batek irabaziak jaso zituen datatik aurrera.

## **10. artikulua.- Askatasunez eskualdatzeari egindako murrizketen publikitatea**

Estatutu hauetako titulu honetan dauden akzioak askatasunez eskualdatzeko murrizketak zigilatuta edo inprimatuta egongo dira Sozietatearen akzioen titulu esanguratsu guztietan.

## **III. TITULUA**

### **SOZIEATEAREN GOBERNU- ETA ADMINISTRAZIO-ERREGIMENA. HORREN ORGANOAK**

#### **11. artikulua.- Sozietate-organoak**

I. Sozietatearen gobernu eta administrazioa honako organo hauen ardurapean daude:

- a) Akziodunen Batzar Nagusia.
- b) Administrazio Kontseilua.
- c) Zuzendaritza Nagusia.

2. Lege-bateraezintasunean dauden pertsonak ezin izango dute kargurik izan Sozietatearen administrazioan, ordezkartzan, aholkularitzan edo zuzendaritzan, indarrean diren legezko xedapenen arabera.

#### **Lehen atala.- Akziodunen Batzar Nagusia**

#### **12. artikulua.- Akordioen izaera eta derrigortasuna**

Akziodunen Batzar Nagusia, Legearen arabera deitu eta eratua, Sozietateko organo burujabea da. Bere erabakiek, zuzen hartuta, akziodun guztiak behartzen dituzte, baita joan ez direnak, disidentek edo bertan behera utziak ere.

### **13. artikulua.- Deialdia, quoruma eta karguak izendatzea**

1. Batzar Nagusiak, arruntak nahiz ohikoak, Legeak aurreikusitakoaren arabera deituko dira.
2. Batzar Nagusi arrunta edo ezohikoa zuzen eratu dadin, lehen deialdian boto eskubidea duen harpidetutako kapitalaren bi herenak gutxienez ordezkatzeko dituzten akziodunak (eurak edo ordezkaturak) bertaratu beharko dira. Bigarren deialdian nahikoa izango da kapital sozialaren gehiengoa.

Akordioak bertaratuen gehiengo osoz hartuko dira. Legean edo Estatutuetan ezarritakoa hartuko da kontuan, horietan kapitalaren edo akziodunen gehiengo handiagoa eskatzen bada akordio batzuetarako.

Batzarrak berak aukeratuko ditu Batzarren presidentea eta idazkaria bilera bakoitzean. Presidentea ez balego, bilerara bertaratutako bazkideek aurrez aurre akziodunak beteko du bere postua; Administrazio Kontseiluak izendatutako pertsonak ordezkatu ahal izango du idazkaria.

### **14. artikulua.- Batzar motak**

1. Batzar Nagusiak arruntak eta ezohikoak izan daitezke.
2. Batzar Nagusi Arrunta ekitaldi bakoitzeko lehen sei hilabeteetan batzartuko da, Sozietatearen aurreko ekitaldiko kudeaketaz jakin eta erabakitzeke, eta, hala badagokio, horri dagozkion kontu eta balantzeak onartu eta irabaziak ezartzeari buruz erabakitzeke.
3. Batzar Nagusiaren gainerako bilera guztiak Ezohikoak izango dira.

### **15. artikulua.- Deialdia**

Administrazio Kontseiluak egingo du Batzar Nagusi Arrunterako nahiz Ezohikorako deialdia.

Administrazio Kontseiluak hala erabakita Ezohiko Batzar Nagusia bilduko da, eta nahitaez deitu beharko du Sozietate Anonimoen Legearen 100. artikulua baldintzak betetzen direnean, artikulua horretako eskaeran tratatu beharreko gaiak adierazita. Eskaera horretatik hogeita hamar egun igaro aurretik egingo da Batzarra, eta gai ordenan horren helburuak adieraziko dira.

### **16. artikulua.- Batzar Nagusietara bertaratzea**

1. Batzar Nagusietara joan ahal izango dira, ahots eta botoarekin, akzioen erregistro liburuan bilera hasteko datatik baino gutxienez bost egun lehenago akzioduntzat agertzen direnak.
2. Bazkideak ez diren Administrazio Kontseiluko kideak Batzar Nagusietara joan daitezke, ahotsarekin baina botorik gabe. Zuzendari nagusiak, hala badagokio, eskubide bera izango du.
3. Batzar Nagusiko presidentek bazkideak ez diren pertsonen presentzia baimendu dezake, ahotsarekin baina botorik gabe; Batzarrak, hala ere, atzera bota dezake baimen hori.

Pertsona horiei deituko baliete gai-ordenaren puntu zehatz baten berri emateko, bakarrik horretaz eztabaidatzeko egongo dira bileran.

4. Eztabaidatutakoa erregistratu edo grabatzen laguntzeko, Batzarreko presidentek beste pertsona batzuen laguntza baimendu dezake, eta Batzar Nagusia egiten ari den aretoan geratu ahal izango dira.

### **17. artikulua.- Batzar Orokorra**

Berriazko deialdirik behar izan gabe, Batzar Nagusia zuzen deitu eta eratuko da edozein gai tratatzeko, baldin eta, ordaindutako kapital osoa dagoenean, bertaratuek aho batez Batzarra egitea adosten badute.

## **18 artikulua.- Ordezkaritza Batzarrean**

1. .Batzar Nagusira joateko eskubidea duten akziodunek beste akziodun bat izendatu ahal dute beren ordezkarri bezala.
2. Ordezkaritza idatziz egiaztatu beharko da Batzar bakoitzerako, eta horren presidentek, oro har, egoki deritzen nahi beste baldintza, berme edo formaltasun ezarri ditzake ahalordetze horri lotuta.
3. Akziodun batek beste bat ordezkatuz parte hartu ahal izateko, Estatutu hauetako hamazazpigarren artikuluan aurreikusitako Batzar Orokorra noiz egin adosteko helburuarekin, ahalordetzeak berariaz baimendu beharko du horretarako.

## **19. artikulua.- Akziodunen Batzar Nagusiaren atribuzioak**

Batzar Nagusiaren atribuzioak dira Sozietate Anonimoen Legeak emandakoak eta, oro har, sozietatearen jarduera garatzeko beharrezkoak direnak, lege-xedapenetan erakunde publikoari eskatutako betebeharreri kalterik egin gabe, eta bereziki:

1. Sozietatearen presidentea eta presidenteordea eta Administrazio Kontseiluko kideak izendatzea.
2. Sozietatearen zuzendari nagusia izendatu eta bereiztea, hala badagokio.
3. Estatutuak aldatzea.
4. Kapitala handitu edo murriztea eta kreditu-eragiketak egitea.
5. Inbentarioa, Balantzea eta urteko kontuak onartzea.
6. Irabazien aplikazioari buruz egokia dena adostea.
7. Batzar Nagusiko kideen artean kontu azterlariak izendatzea.
8. Kanpo Auditoretzak kontratatzea.
9. Jarduera eta Inbertsioen Plan Orokorrak onartzea, baita beren aurrekontuak ere.
10. Sozietate Anonimoen Legeak Batzar Nagusiari egozten dizkion beste guztiak.

## **Bigarren atala. - Administrazio Kontseilua**

### **20. artikulua.- Izaera**

Administrazio Kontseilua Sozietatea kudeatzen eta ordezkatzen duen organoa da, neurri zabalenean, epaiketari eta epaiketarik kanpo, Batzar Nagusiak hartutako baliozko akordioetatik eratorritakoak eta Legeak edo Estatutuek Batzarrari berariaz emandako ahalmenak beste mugarik ez duela.

### **21. artikulua.- Osaketa eta izendapena**

Presidentek, presidenteordeak eta gutxienez sei eta gehienez hamar kidek osatuko dute Administrazio Kontseilua. Batzar Nagusiak izendatuko ditu guztiak eta dagokien gaitasunean, kapital sozialaren gehiengo osoaren aldeko botoarekin, eta hala badagokio, Sozietate Anonimoen Legearen 137. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Administrazio Kontseiluak emango du idazkari kargua, eta horretarako ez da kontseilari izan behar.

Ez da akzioduna izan behar Kontseiluko kide izateko.

### **22. artikulua.- Iraupena eta zatika berritzea**

1. Kontseilari karguak gehienez lau urte iraungo du, izendapenetik zenbatzen hasita. Kontseilariak behin eta berriz hautatuak izan daitezke mugarik gabe.
2. Kontseiluaren kudeaketa epean plaza hutsak agertuko balira, Batzar Nagusiak ordezkatuko ditu, izendapenean erabilitako baldintza berberekin. Horrela izendatutako administratzaileen agintaldia ordezkatuei zegokien denbora-tartera murriztuko da.



3. Edozein momentutan, Administrazio Kontseiluko kideen kopurua handitu, titularrak izendatu eta izendatutakoak nola berritu zehaztu ahal izango du Batzar Nagusiak.

4. Administrazio Kontseiluko kideen kopurua murriztea Batzar Nagusiak bakarrik adostu ahal izango du, postu bat bete gabe badago edo amortizatzen ari den kontseilari posturako epea amaitzen bada.

### **23. artikulua.- Administrazio Kontseiluaren bilerak**

1. Administrazio Kontseilua, oro har, egoitza sozialean bilduko da, presidenteak deitu ostean, bere kabuz edo kontseilariaren heren batek edo zuzendari nagusiak idatziz hala eskatuta, eskaera hori egin eta hurrengo hamabost egun naturalen barruan, eta kasu horretan, gai-ordenan horren helburuak sartu beharko dira.

2. Deialdia, larrialdi kasuetan salbu, berrogeita zortzi orduko aurrerapenarekin egingo da, aztertu beharreko gai-ordenarekin batera.

3. Administrazio Kontseilua ere deituta eta eratuta egongo da edozein gai aztertzeke, baldin eta kide guztiak bertaratzen badira eta aho batez Kontseilua egitea adosten badute.

Ezein administratzailek ezin izango du beste baten ordezkari parte hartu aurreko atalari dagokion akordioa hartzeko, baldin eta hogeita laugarren artikulua aipatzen duen ahalordetzeak ordezkariari berariaz eskubidea ematen ez badio.

4. Aurreko zenbakian aurreikusitakoa salbu, aldez aurretik igorritako gai-ordenan dauden gaiak bakarrik eztabaidatu ahal izango ditu Administrazio Kontseiluak.

### **24. artikulua.- Kontseilura bertaratzea**

1. Kontseiluaren bileretara joan ahal izango dira, ahotsarekin eta botoarekin, une honetan kontseilari diren guztiak.

2. Administrazio Kontseilua zuzen eratu dadin, bere kideen erdiak baino bat gehiago egon beharko dira, bertaratuta edo ordezkatuta, Estatutu hauetako 23.3 artikuluan ezarritakoa izan ezik.

3. Kontseilari guztiek beste kontseilari baten ordezkariak bakarrik hartu ahal izango dute, bertaratu gabea edo ezindua, idatziz ahalordetzea emanda bilera bakoitzerako.

Ordezkariak Estatutu hauetako hogeita hirugarren artikulua hirugarren zenbakian aurreikusitako Administrazio Kontseiluaren ezohiko bilera zuzen adostu ahal izateko, ahalordetzea berariaz luzatu beharko da ahalmen horretara.

4. Administrazio Kontseiluak oro har ezarri ahal izango ditu egoki iruditzen zaizkion bermeak, formaltasunak edo baldintzak, Kontseiluaren bileretan parte hartzeko, administrari batek beste bati egindako ahalordetzea egiaztatzen duten agirien inguruan.

5. Zuzendari nagusia, administratzailea ez balitz, bileretara joan ahal izango da, Kontseiluko presidenteak gonbidatuta, ahotsarekin eta botorik gabe.

Bertaratu ahal izango da Kontseiluaren bilera egiteko bere eskaeran sartutako gaiak eztabaidatzen badira. Estatutu hauetako hamaseigarren artikuluko hiru eta laugarren zenbakiek aipatutako pertsonak bertaratzea baimendu dezake Administrazio Kontseiluko presidenteak, bertan aurreikusitako helburuetarako.

### **25. artikulua.- Kontseiluaren deliberazioak**

1. Kontseiluko presidenteak ahalordetzeak aztertu eta kalifikatuko ditu, bilerara bertaratuen zerrenda egin, eztabaidak antolatu eta zuzendu, hitz egiteko eskubidea duten bertaratuei hitza eman edo kendu, eta botazioak prestatu eta zuzenduko ditu. Kontseiluko presidentea bertaratu ez bada edo ezin izan badu, presidenteordeak ordezkatuko du, edo bestela, adinez nagusia den kontseilariak.

2. Kontseiluaren erabakiak bertaratuen gehiengo osoz hartuko dira, Legeak edo Estatutu hauek bestelakorik eskatu ezean.



3. Zenbaketan berdinketa badago, Kontseiluko presidenteak kalitateko botoa dauka.
4. Bileretan akta egingo da, eta behin Kontseiluak onartuta, indar betearazlea izango du.

Idazkariaren ardurapean egongo dira Kontseiluaren bilera bakoitzaren aktak, eta hala badagokio, presidentearen esku dauden langileen eta bitartekoen laguntza izango du.

Idazkaria bertaratzen ez bada edo ezin izan badu, adinez txikiena den kontseilariak ordezkatu du.

## **26. artikulua.- Administrazio Kontseiluaren atribuzioak**

Administrazio Kontseiluak botere eta ahalmenik handienak izango ditu Sozietatearen interesak zuzendu, kudeatu eta administratzeko, eta Batzar Nagusiarentzat berariaz gordeta ez dauden atribuzio guztiak dagozkie.

1. Enuntziatio-izaera hutsarekin, eta bere ahalmenen ezaugarri nagusiak murriztu gabe, honako hauek izango dira:
  - a) Estatutu hauek berariaz ematen dizkietenak.
  - b) Batzar Nagusien akordioak betetzea.
  - c) Sozietatea osorik ordezkatzeko edozein ekitaldi, kontratu, hitzarmen eta negoziatuetan.
  - d) Sozietatea ordezkatzeko epaiketetan eta epaiketarik kanpo, bere esku dauden ekintzak gauzatu edo horiek baztertuz edozein instantzian.
  - e) Sozietateko mota guztietako langileak izendatu, kontratatu eta banatzea, zuzendari nagusia salbu, eta beren eskubideak eta beharrak ezartzea, baita berari ordaindu beharreko ordainsariak arrazoia edozein dela ere, Batzar Nagusiak adierazitako hautaketa eta ordainketa eredu eta irizpideen barruan.
  - f) Sozietatearen martxa antolatu, zuzendu eta aztertzea, eta Batzar Nagusiari barne araudia proposatzea, enpresaren jarduerak hala eskatzen badute.
  - g) Sozietatearen helburua gauzatzeko beharrezkoak eta komeni diren ekitaldiak eta kontratuak egitea, eta trafiko juridikoaren eta Sozietatearen helburuari lotutako negozio eta eragiketa mota guztiak gauzatea.
  - h) Sozietateari komeni litzaizkiokeen kreditu eta mailegu eragiketak adostea, baita abalak eta fidantzak ematea ere.
  - i) Sozietatearen aurrekontuak eta programak egitea legezkiekeen baimen eta fiskalizazioei kalterik egin gabe.
  - j) Batzar Nagusi Arruntari urtero aurkeztea kontuak, balantzeak, Sozietatearen ekitaldiko kudeaketa azaltzeko memoria, eta araudi aplikagarriak eskatutako agiri guztiak.
  - k) Presidenteak Batzar Nagusi Arruntak eta Ezohikoak deitzea.
  - l) Komenigarri irizten diren akordioak hartzea Sozietateari dagozkion eskubide eta ekintzak erabiltzeari buruz hauen aurrean: bulego publiko edo pribatuak, estatukoak, erakunde autonomikoak, lurralde-administrazioak edo instituzioak, erakundeak, Epaitegi eta Auzitegi Arruntak eta Bereziak, eta Auzitegi Gorena eta Konstituzio Auzitegia; bai eta erreklamazioak edo helegite arruntak eta bereziak jartzea ere, eta ahalmen arruntak edo bereziak ematea Letradu eta Prokuradoreen aldeko auzietarako, egoki deritzon moduan, eta Prozesu Legeetan dauden ahalmen handienekin, baita kereilak berrestekoa, jarrerak absolutzekoa eta errekurtsioei uko egitekoa ere, baita kasaziokoak ere.
  - m) Sozietatearen gaien transakzioa eta konpromisoa zuzenbide pribatuko arbitrajean, ezarritako edozein modalitatetan.
  - n) Sozietatearen fondoak eta ondasunak eskura izatea, erreklamazioa, sozietatearen interesei dagokiena eta komeni zaiena eskuratzea eta kobratzea, gordailuak sortu eta deuseztatzea, bankuko kontu korrontekak, kreditukoak edo bestelakoak zabaldu, mobilizatu eta ixtea, eskudirua edo baloreak oro har ateratzea, Espainiako edo atzerriko erakundeekin bankuko edozein eragiketa egitea, Banku Ofiziala barne, Sozietatearen fondoak eskura izatea, igorpena, endosua, abala, onarpena, negoziatzea, kanbio-letren protesta eta ordainketa eta merkataritzako ondorioak eta, azken finean, banku eta merkataritza trafikoko eragiketa guztiak egitea, mugarik gabe.

o) Pertsona jakin batzuei ahalmenak ematea, egoki iruditzen zaion bezain zabalak, bete beharreko helbururako eta sozietatearen interesak ahalik eta ondoen babesteko, Legeak eta Estatutu hauek ezarritako mugen barruan.

2. Aurreko zerrenda adierazteko besterik ez da, eta ez du mugatzen, inola ere, Administrazio Kontseiluak dituen ahalmenak Sozietatearen negozioak eta interesak gobernatu, zuzendu eta administratzeko, Akziodunen Batzar Nagusiaren eskumenari bereziki erreserbatuta ez dagoen neurrian.

3. Administrazio Kontseiluak Sozietateko zuzendari nagusiaren edo kontseilari baten esku utzi ahal izango ditu Estatutu hauetan esleitutako ahalmen guztiak, Legez eskuordetu ezin direnak salbu.

4. Kontseiluko presidentek, kontseilari bezala dagozkion ahalmenez gain, eta Legeak edo Estatutu hauek esleitutakoez gain, Administrazio Kontseiluaren eta beste administrazio-organo elkargokideen akordioak bete beharko ditu, eta Sozietatea ordezkatzeko du Batzar Nagusian eta Administrazio Kontseiluan hartutako akordioetatik eratorritako ekitaldi eta kontratuak egitean.

Era berean, Sozietatea ordezkatzeko du agertuko diren auzietan, espedienteetan, administrazio-azuzietan, gobernu-azuzietan, gai judizial eta estrajudizialeetan, auzi-jartzaile edo demandatu gisa edo bestelako izaera batekin.

Presidentek bere atribuzio guztiak edo batzuk utzi ahal izango ditu kontseilari baten edo zuzendari nagusiaren esku.

## **27. artikulua.- Kontseiluko kideen ordainketa**

Batzorde Nagusiak zehaztuko du, hala badagokio, Kontseiluko kideen ordainketa ekitaldi bakoitzerako.

## **Hirugarren atala. - Zuzendari nagusia.**

### **28. artikulua.- Izaera.**

Batzar Nagusiak izendatu eta kargutik kenduko du zuzendari nagusia, Administrazio Kontseiluak hala proposatuta.

### **29. artikulua.- Eskumena**

1. Administrazio Kontseiluak behar bezala esleituko dizkio ahalmenak zuzendari nagusiari, eta horrek edozein momentutan ezeztatu edo aldatu ahal izango ditu, eta nolana ere, honako hauek:

a) Zerbitzu eta instalazioetan egoki eta komenigarri iruditzen zaizkion hedapenak, aldaketak eta berrikuntzak aztertu eta proposatzea, baita kontserbazio, mantentze eta berritze lanak, eta zerbitzua hobeto emateko mota guztietako material eta tresnak eskuratzea ere.

b) Kudeaketa jarduerak, azterketa eta proposamenen ekimena gauzatzea enpresaren ustiaketa arrunta eta egokia lortzeko alderdi ekonomikotik.

c) Kontseiluak eta presidentek aztertu, ezagutu, bideratu eta onartu beharreko gai eta agiri guztiak prestatu, bildu eta antolatzea.

d) Kontseiluak hartutako akordio eta ebazpenak prestatu, tramitatu eta betearaztea, presidentearen zuzendaritzapean.

e) Ekitaldi bakoitzaren amaieran, Kontseilura igortzea kudeaketaren garapenaren Memoria, eta Kontseiluak Batzar Nagusira aurkeztu beharrekoa idaztea.

f) Gutunak eta agiriak sinadurarekin baimentzea, hala badagokie.

2. Administrazio Kontseiluak zuzendari nagusiaren esku utzi ahal izango ditu bere eskumenerako ahalmenak, eskuordetzean ezarritako terminoetan. Eskuordetzea eskritura publikoan jaso, eta Merkataritza Erregistroan inskribatu beharko da.

3. Ez da inola ere eskuordetuko Batzar Nagusiari kontuak ematea eta balantzeak aurkeztea, ezta horrek Kontseiluari emandako ahalmenak ere, berariaz hala baimendu ez badu.

### **30. artikulua.- Iraupena.**

1. Zuzendari nagusiaren agintaldiaren iraupena mugagabea izango da, Batzar Nagusiak izendapena baliogabetu ezean.
2. Artikulu honek eta aurreko biek aipatzen dituzten Batzar Nagusiaren akordioak Estatutu hauetako 28.5 artikulua aurreikusitako gehiengoak onartuko ditu.

## **IV. TITULUA**

### **SOZietateAREN ERREGIMEN EKONOMIKOA**

#### **31. artikulua.- Ekitaldiaren iraupena.**

Sozietatearen ekitaldia urtarilaren batean hasiko da eta urtero abenduaren hogeita hamaikan amaituko da. Salbuespen bezala, lehen ekitaldia Sozietatearen eraketa Merkataritza Erregistroan inskribatzen denean hasiko da.

#### **32. artikulua.- Ekonomia eta kontabilitate agiriak.**

1. Legean, edo Batzar Nagusiak hala adierazita, nahitaezko izaeraz ezarritako liburu, erregistro, programa eta ekonomia-, aurrekontu- eta kontabilitate-agiriak eraman eta formulatzeaz arduratuko da Administrazio Kontseilua.
2. Aurreko atalean aurreikusitakoa kontuan hartu gabe, beren egoera berezi subjektiboagatik, dokumentazio administratibo zehatza bete behar duten akziodunek baldintza hau bete beharko dute.

#### **33. artikulua.- Kontuen zentsura.**

Kontuen azterketa eta zentsura ekitaldi guztietan egingo da Sozietate Anonimoen indarreko legediak ezarritakoaren arabera.

#### **34. artikulua.- Irabazien banaketa.**

Sozietatearen etekin likidoak egongo balira, sozietatearen karga eta gastuei, eta legezko eta borondatezko erreserbei erantzun ostean, zenbatekoa Batzar Nagusiak adostutako helburuetara zuzenduko da.

## **V. TITULUA**

### **SOZietateAREN DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA**

#### **35. artikulua.- Arrazoiak.**

1. Sozietate Anonimoen Legearen 260. artikulua ezarritako arrazoiengatik desegingo da Sozietatea.

#### **36. artikulua.- Likidatzaileak.**

1. Arrazoa edozein dela ere, likidatzaileak izendatu behar badituzte, Administrazio Kontseiluko kideek beteko dituzte funtzio horiek, Batzar Nagusiak besterik agindu ezean.
2. Aurreko zenbakian adierazitako unean, Kontseiluko kideen kopurua bikoitia izango balitz, adinez txikiena den administratzaileak likidatzaile funtzioak hartuko ditu.

#### **37. artikulua.- Prozedura.**

Estatutu hauek berariaz aurreikusi ez dituzten gai guztietan, Legeak ezarritakoak aginduko du Sozietatea desegin eta likidatzeko.

## **VI. TITULUA**

### **ESTATUTUEI MEN EGITEA ETA GATAZKAK**

#### **38. artikulua.- Estatutuei men egitea.**

Akzio bakar bat harpidetuta ere, akziodunak men egin behar die guztiz Estatutu hauetako prebentzioei, eta Sozietateko organoek zuzen hartutako akordio eta erabakiei, betiere akziodunaren aurkaratze eta banantze eskubideei kalterik egin gabe.

#### **39. artikulua.- Arbitraje klausula.**

1. Akziodun baten edo batzuen eta Sozietatearen edo bere organoren baten arteko desadostasuna dagoenean, Estatutu hauek edo sozietateko organoen akordio eta erabakiak ulertu, bete eta praktikan jartzeko, Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganberako Presidenteak egingo du ekitateko arbitrajea. Horrela, akziodun guztiek konpromisoa formalizatzeko eta laudoa jaulkitzeko nahitaezko tramiteak egin beharko dituzte, eta Auzitegien aurrean akzioa erabiltzeari berariaz uko egin beharko diote.

2. Batzar Nagusiak egoitza soziala aldatuko balu, Estatutu hauetako hirugarren artikuluko bigarren paragrafoa ezarritakoaren arabera, ekitateko arbitrajea Lurralde Historikoko edo probintziako Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganberako Presidenteari egokituko zaio.